

PENTSIO DUINAK. MOZIOA

2018rako aurreikusitako Estatuko Aurrekontu Orokorrek pentsioen egoera larria are gehiago larritzen dute, eta horren aurrean Ermuko Udalak zera aldarrikatu nahi du:

- Pentsioen hazkundera KPIren hazkundearekin lotzea.** Izan ere hurrengo ekitaldirako aurreikusitako pentsioen 0,25eko hazkundera oso urrun dago aurreikusitako KPItik, %2koa izango baita, gutxi gora behera.
- Iraunkortasun faktorea ez aplikatzea eskatzen dugu;** horrek pentsioak mundu mailan %18 eta %20 bitartean ahultzea suposatzen baitu.
- 1080€ko gutxieneko pentsioa;** hain zuzen ere, Europako Karta Sozialean jasotzen denarekin bat datorrena. Hau lortze aldera, Eusko Jaurlaritzari 1.080 € baino txikiagoak diren pentsioak, kopuru horretaraino osatzea eskatzen diogu.
- Euskal babes eta gizarte segurantzaren sistema propioa.** Sistema propioak erabakiak gure esku izatea ahalbidetzen du, aldiz, Gizarte Segurantzaren eskumena izateak ez du bermatzen herritarren eskubideak eta baldintza duinak betetzea; are gehiago, euskal jendartearen espainiar legediaren menpekotasun egoeran mantentzea suposatzen du, azken finean legedi hori betetzera behartuta egongo ginateke, eta Espainiako kutxa bakarren zati bat kudeatzeko aukera baino ez digu ematen eskumena izateak.

Akordio honen berri emango zaio Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari eta Espainiako Gobernu Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministeritzari.